

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UC
UNIVERSIDAD DE CANTABRIA

# INGENIARITZA KIMIKOA MASTERRA

www.ehu.eus

## AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Ingeniaritza Kimikoa da azken hamarkadetan hazkunde eta garapen handiena izan duten arlo zientifiko eta teknologikoetako bat. Gainera, arlo oso ezberdinetan handitu eta garatu da: esaterako, petrokimikan, elikagaien industrian edo farmazian. Horregatik, Ingeniaritza Kimikoan berariazko prestakuntza duten adituak behar dira, eta profesional horiek kimika-industrian eta prozesuen industrian gai izan beharko dute prozesuak garatzeko, hobetzeko eta optimizatzeko; ekoizpeneko instalazioetan jarduteko, etab. «Ingeniaritza Kimikoa» unibertsitate arteko masterraren helburu nagusia eginkizun askotarikoak egin ditzaketen langile profesionalak trebatzea da. Masterraren bidez, hainbat industria-sektoretan, zerbitzu askotan eta Administrazioan lan egiteko gaitasunak eskuratzen dira, sektoreko eskaeren araberako eginkizun profesional oso ezberdinak egiteko gai izateko. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) eta Kantabriako Unibertsitateak elkarrekin garatu dute masterra. Nahitaezkoa da kanpoko praktikak egitea.

## SARBIDEA

Gradua Ingeniaritza Kimikoan edo Industria Kimikaren Ingeniaritzan; Ingeniaritza Kimikoko titulazioa. Industria-ingeniariak edo industria-ingeniari teknikoak, Industria Kimikan espezializatuak eta UPV/EHUko Ingurumen Ingeniaritzako Gradua. Batzorde Akademikoak ezarriko ditu, prestakuntza-osagarriekin, beste gradu edo titulazio batzuetatik sartzeko irizpideak.

## IRTEERA PROFESIONALAK

Industria-sektoreetan (oinarrizko kimika, petrokimika, elikagaien industria, farmazia-sektorea, energia berriztagarriak), zerbitzuetan eta Administrazioan. Honako arlo hauetan: diseinuan eta prozesuen ingeniaritzan, I+G+b, kudeatzailetzan eta zuzendaritzan, salmentetan eta marketinean.
Doktorego-programan sartzea.

## OINARRIZKO INFORMAZIOA

| | |
|---|---|
| **Eskolak emateko lekua:** | Zientzia eta Teknologia Fakultatea, UPV/EHU (Leioa). Escuela Técnica Superior de Ingenieros Industriales y de Telecomunicaciones, UC (Santander). |
| **Irakaskuntza mota:** | Eskolan bertakoa. |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania (2 hautazko ingelesez izan ezik). |
| **Gutxi gorabeherako prezioa:** | 3.050-3.250 €. |
| **Egutegia:** | Nahitaezkoak: Urritik urtarrilera, goizez eta arratsaldez (UPV/EHU). Otsailetik martxora, goizez eta arratsaldez (UC). Hautazkoak: Apiriletik maiatzera, arratsaldez (UC) edo goizez eta arratsaldez (UPV/EHU). |

## IRAKASTORDUAK/IRAUPENA

90 ECTS / ikasturte 1 eta erdi

| Nahitaezko Gaiak | Hautazko Gaiak | Proiektuak / Ikerketa-lanak | Guztira |
|---|---|---|---|
| 58,5 ECTS kreditu | 15 ECTS kreditu | 16,5 ECTS kreditu | 90 ECTS kreditu |

## PRESTAKUNTZA PROGRAMA

**Nahitaezkoak:**
- Prozesu kimikoen modelakuntza eta simulazioa.
- Prozesu kimikoen optimizazio aurreratua.
- Erreaktore kimikoen hedapena.
- Prozesu kimikoen kontrol aurreratua.
- Bereizketarako eragiketa aurreratuak.
- Produktuen eta prozesuen diseinua teknika eskuragarririk hoberenetan oinarrituta .
- Prozesuen eta produktuen jasangarritasuna.
- Kudeaketarako sistema aurreratuak.
- Garapen jasangarrirako produkzio kimikoaren optimizazioa.
- I+G+b ihardueren kudeaketa.
- Kanpoko praktikak.
- Master-amaierako lana.

**Hautazkoak:**
- Knowledge Dissemination in Chemical Engineering
- Katalisia eta prozesu katalitikoak.

Blokea: Energia
- Petrolioaren ordezko iturriak erregaietarako.
- Energia eta jasangarritasuna.
- Hidrogeno: lehengaia eta enegia bektorea.
- Findegirako eta petrokimikarako teknologiak.

Blokea: Ingurumena
- Teknologia katalitikoak airearen kutsaduraren kontrolerako.
- Uren tratamendua.
- Kutsatutako lurzoruak konpontzea.
- Hondakinen balioztatzea.

Blokea: Baliabideen kudeaketa iraunkorra
- Prozesuen eta produktuen bizi-zikloaren analisia.
- Prozesuen areagotzea eta integrazioa energiaren optimiziorako.
- Ur iturri berriak.
- Emerging Technologies in Chemical Engineering

## HARREMANETARAKO

**Arduraduna:**
Ana Guadalupe Gayubo Cazorla
**Tel:** 94 601 4174
**Posta elektronikoa:**
anaguadalupe.gayubo@ehu.eus

## ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK / BABESLEAK

UPV/EHUk hauekin sinatu ditu hitzarmenak:

Kantabriako Unibertsitateak hauekin sinatu ditu hitzarmenak:

www.ehu.eus/eu/web/master/ingeniaritza-kimikoa-masterra